

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK
Ospitalizazioko Unitatea – KARDIOLOGIA**Dei egin behar baduzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA**
ARAU OROKORRAK GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN

- Ospitaleratutako pazienteak zaren bezala, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen zerbitzuak** egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitateetik borondatez irteketan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaleetik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNari eusten.
- Zure egonaldian, gela bakoitzean dagoen erorikoaren prebentzioari buruzko informazioa irakurtzea gomendatzen dizugu.
- Txirrina duzu logelan eta komunean. Behar gaituzun guztietan deitu, horrela lana errazten diguzulako, eta erizaintzako kontrolera irteketan bazara, baliteke gu oztokatzea.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratutako unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingesaturik dagoen inori buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalen inguruko ardurarik.
- 09:00etatik 13:00etara laguntzaileek unitateetik kanpo irten behar izango dute, baina beharrezkoa izanez gero, paziente bakoitzeko pertsona bat egon daiteke. Debekatuta dago unitateko korredoretan geratzea.

MEDIKUAREN BISITA/ SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Egunero, jaiegunetan izan ezik.
- 10:00etatik 14:00etara, gutxi gorabehera.
- Egonaldian, laguntzaileek korridorera irten beharko dute. Gelatik irteetan, medikuak gaixotasunaren bilakaeraren berri emango dizue.

OTORDUAK

9:00etan	Gosaria
13:00etan	Bazkaria
17:00etan	Askaria
20:00etan	Afaria

BISITAK

- 16:00etatik 21:00etara.
- **Gehienez PERTSONA 1** paziente bakoitzeko. Nahi izanez gero, senitarteko bat zurekin 24 orduetan egon daiteke.

BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK

Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitaleratzearen egiaztagiria Harrerako Zerbitzuan jasotzen da, beheko solairuan, sarreran. Ospitaleratutako pazientearen NANA aurkeztu beharko duzu (datu gehiago behar badituzu, jarri harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).

**TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituta: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo zerbait behar izanez gero, deitu 1422 luzapenera edo 636 46 59 37 telefono-zenbakira. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-eta.



KAFETEGIA: Ordutegia: 07:30etik 22:00etara. KAFETEGIA ERDISOTOAN DAGO. Igogailuetako hall-ean kafe-eta freskagarri- makinak daude.



OSPITALEKO ALTA: Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senitartekoren batekin egotea. Komeni da, halaber, alta-txosten hori entregatu ondoren gela uztea, edo, behar izanez gero, lehenago ere bai. Horretarako, hall-ean itxaron, ohea behar duten beste paziente batzuentzat prestatu ahal izateko.

PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) 4. C solairuan dago
Ordutegia: 09:00-14:30 (astelehenetik ostiralera).